

## **NEGOZIOAREN IDEIA → DESING UP**

Online arropa denda bat sortu nahi dugu, “*Desing Up*” deiturikoa . Arropa denda hau berrerabilitako arropa erabiliz egingo dugu. Online dendan pertsonak haiek nahi duten arropa diseinuak egin ahal izango dute eta arropa berrerabilita erabiliz diseinu horiek egingo ditugu haiei saltzeko. Diseinuak web orrian jarriko ditugu beste pertsona batzuk erosi ahal izateko. Diseinua egindako pertsona % bat eraman ahal izango ditu salmentetatik.

## **BALIO PROPOSAMENA** (Balore kualitatibo)

### • **Berritasuna:**

Bakoitzak diseinaturiko eta gustoko duen arropa erosi ahal izango du bere etxetik mugitu barik. Gainera, arropa birziklatuaz izango dira janzkiak.

Web orrian sekzio bat egongo da dirua eman dezakezuna, biltzen den diruarekin arropa behar duten pertsonen arropa emango zaie.

### • **Pertsonalizazioa:**

Jendeak disinaturiko arropa web guenari igoko da, norbaitek gehiago erosi nahi badu. Honela jendeak arropa janzki ezberdin eta modelo asko aurkituko ditu.

### • **Marka/Estatusa:**

“*Low Cost*” arropa denda, online eta ekologikoa.

### • **Prezioa:**

Arropa birziklatua izatea haren prezioa jaistea eragiten du.

### • **Arriskuaren murrizketa**

Hasieran proiektua online izango da, arriskuak murrizteko ez badu funtzionatzen. Arrakasta badu, denda fisiko bat zabalduko dugu. Bidalketak Espainaren barruan hasiko gara egiten, gero arrakasta badu, zabaltzen joango gara.

### • **Eskuragarritasuna eta erabilerraztasuna**

Online denez, mugikorra edo ordenagailuaren bidez arropa erosi ahalko da, gero zure etxera bidaliko dugu. Era berean, normalean dendetan aukitzen ez dituzun arropa janzkiak aurkituko ahalko dira.